



Mendia eta abeltzaintza uztartzeko abiapuntua

Ordiziako udalean abeltzaintza eta mendia-
ren inguruko **ihardunaldiak** egin dira

Mendiko Artzantza Lan Taldeak eta EHNE Sindikatuak pasa den irailaren 6 eta 7an mendia eta abeltzaintzari buruzko ihardunaldiak burutu zituen Ordiziako Udal-etxean.

Mendia eta Abeltzaintza uztartu eta guztion artean egin beharreko bide baten markatzearen beharrak bultzatu gaitu honelako ihardun-

behar bezela uztartuz gizartean eman beharreko eztabaidari hasiera eman nahian. Azken finean, gizarte honetako guztion ardura baita gai mamitsu honen inguruan hausnartu eta behar bezelako bide egokia egitea.

Esan bezela eztabaidari hasiera jarri genion ihardunaldi hauekin eta bertaratu ginen artzai, abeltzain,

gipuzkoa

Sagardo sagarra eztabaidagai

Aurtengo sagardo sagarraren prezioa itxi gabe geratu da

Pasa den irailaren 13an Sagardo kanpainaren nondik norakoak zehazteko bilera egin zen. Bilera honetan sagarraren produkzio eta prezio izan dira abiatzeko puntuak eta aipatu bilera honetan prezioa itxi gabe geratu dela.

Kanpainari hasiera eman baino lehen, urteroko legez egiten den bilera burutu dute bai sindikatu, sagardozaleen bi elkarte eta Fruitel sagar ekoizleen elkartekok.

Lehenengo urtean gertatu den bide berdinetik aurtengo ere sagardo sagarraren prezioa itxi gabe geratu da. Prezioa itxi gabe geratzearren arrazoi nagusia elkarreentako batek (Sagardozaleen asoziazioak) kalitateko sagarraren balorea ez errekonozitu nahi izatea da. Aldiz Taldea Elkartekok azken urte hauetan oinarritzko prezio bati kalitateko plusa erantsiaz gehiago ordaintzen duenean.

Kalitatea izanik prezioa zehazteko garaian klabeetariko elementu bat, esan behar dugu ez gairela ados jartzeko kalitatearen minimoak zehazteko garaian. Izan ere EHNEk gaur egungo sagar produkzioaren kalitate minimoa sagarra garbia, ustelik gabea eta bildutako epe laburrean sagardotegira eramatean ezartzen baitu.

Taldeakoez onartzen badute ere

EHNE Sindikatuak egiten duen hausnarketa hau, sagardozaleen elkartekok hori ez dela nahikoa diote, beraien ustez baritate guztiak ere bereiztu egin behar bait lirateke eta horri emango liokete prezio gehigarri edo plus hori.

Helburua kalitateko sagarraz gain barietateak bereiztuta ematea izango balitz ere (beti ere sagardo hobeago bat egitearren) gaurko errealitatean sagar sektorea nola dagoen antolatuta ikusirik ezinezkoa den gauza bat da, sagasti txikiak eta barietate askoko sagastiak baititugu.

Hemen dago eztabaida eta lehen bileran aipaturiko guzti honetan adostasunik lortu ez denez prezioa itxi gabe geratu da.

Prezioen negoziaketa honetan EHNE Sindikatuaren ustez iaz eskatu genuen prezio berdina mantentzea iruditzen zaigu bidezkoena, hau da, 0'24 Euro edo 40 pezetetan mantentzea. Sagardozaleen asoziazioak aldiz 0'22 Euro edo 36'60 pezeta eskeintzen duelarik 2.002 urterako

eta 2.003 urterako 0'23 Euro edo 37'50 pezeta.

Taldeakoez berriz iazko prezioa mantentzen dute, hau da, 0'19 Euro edo 32 pezeta oinarritzko prezioa eta kalitateko gehigarri bezela edo plus bezela 0'05 Euro edo 8 pezeta honela 0'24 Euro edo 40 pezeta osatuaz.

Prezio desberdintasun hau ikusirik eta alde aurretik aipaturiko kalitatearen eztabaidan ere desberdintasuna egonik ez da adostasunik eman.

Bestalde aipatu aurtengo sagar produkzioa iaz baino zerbait gehiago dela. Iaz 4'5 miloi baldin bazen, aurtengo 5'5 miloi inguruko produkzioa izango da.

Beraz, EHNE Sindikatuak base-ritar guztiei adierazi nahi die bere betiko sagardogilearekin harremanetan jartzeko garaian prezio hauek oinarri bezela erabiltzeko eta beti ere ahal den gehiena kobratu ahal izateko, jakin badakigunez sagardogileak prezio hauek erreferentzi bezela erabiltzen dituela eta kasu askotan haez gaindik ordaintzen duela.